

JOKALARI BETERANOEN EUSKADIKO

XXIV. XAKE TXAPELKETA.

(2009.go ekainaren 20an eta 21ean jokatua).

Zarauzko Kirol Elkartean (Gipuzkoa) jokatu zen, larunbatean eta igandean. Sei jardunaldiko sistema suitzarra erabili zen. 15 jokalaria izan ziren parte hartzaile (iaz baino 6 gutxiago). Antolatzaileak: Euskal Xake Federakuntza eta Zarautz Xake Elkartea.

Ordubeteko partidak izan ziren. Antolakuntzaren arduraduna Esteban Collantes eta epaile nagusia Lukas Iruretagoiena izan ziren.

AZKENEKO SAILKAPENA.

1) Siu Hung Tung (Gipuzkoa) – 6 puntu.

- 2) Jose Manuel Garcia Sanchez (Bizkaia) – 5 puntu.
- 3) Rafael Ruiz Escobar (Nafarroa) – 4 puntu.
- 4) Jesus Maria Gonzalez Pabollet (Nafarroa) – 4 puntu.
- 5) Julen Aretxabaleta Saez (Bizkaia) – 4 puntu.
- 6) Teresa Junquera Ciauriz (Araba) – 3 puntu.
- 7) Jose L. Iglesias Gomez (Gipuzkoa) – 3 puntu.
- 8) Raimundo De Andres Barrena (Bizkaia) – 3 puntu.
- 9) Iñaki Aizpurua Zufiria (Gipuzkoa) – 3 puntu.
- 10) Manuel Lopez Sainz (Gipuzkoa) – 2'5 puntu.
- 11) Jose M. Rodriguez Cordero (Bizkaia) – 2'5 puntu.
- 12) Javier M. Vilches (Zarautz, Gipuzkoa) – 2 puntu.
- 13) Bonifacio Varona Iglesias (Araba) – 2 puntu.
- 14) Jose A. Ajubita (Araba) – 2 puntu.
- 15) Jose Antonio Irulegi Garmendia (Gipuzkoa) – 2 puntu.

Siu Hung Tung jokalaria gipuzkoarrak berretsi zuen aurreko urteko garaipena. Modu berean, gainera: Sei partidak irabazita.

Jose Manuel Garcia Sanchez bizkaitarra bigarren geratu zen, 2008ko 10. postua nabarmen hobetuta. 2006an, Txapelketa honetako garailea izan zen.

Rafael Ruiz Escobar adin honetan Nafarroako menperatzaileak ez zuen bere helburua lortu: 2004ko titulua errepikatzea. Izanen du bestelako aukerarik, kalitatea soberan du eta.

Iparraldeko Alain Darrigues, Nafarroako Antonio Casado eta Iparraldeko Jean Paul Tholey jokalariek ez zuten parte hartu. 2008an, bigarren, hirugarren eta laugarren geratu ziren.

2008an, bosgarren Jesus Maria Gonzalez Pabollet nafarra izan zen. Aurten hobetu du postua: Laugarren.

Raimundo De Andres 2003ko garaileak zortzigarren bukatu zuen. Jose Alfredo Garcia Moreno arabarra, 2005ean eta 2007an irabazle izandakoa, ez zen aritu (2008an, 18. postuan amaitu zuen).

Siu Hung Tung Donostiako Easo taldeko jokalaria da. 1.947 puntu ditu Euskal eloan eta 1.893 FIDE eloan.

AZKENEKO TXAPELDUNAK.

2003. urtean: **Raimundo De Andres Barrena** (Bizkaia).

2004. urtean: **Rafael Ruiz Escobar** (Nafarroa).

2005. urtean: **Jose Alfredo Garcia Moreno** (Araba).

2006. urtean: **Jose Manuel Garcia Sanchez** (Bizkaia).

2007. urtean: **Jose Alfredo Garcia Moreno** (Araba).

2008. urtean: **Siu Hung Tung** (Gipuzkoa).

2009. urtean: **Siu Hung Tung** (Gipuzkoa).

2009-06-21.

Iturria: Euskal Xake Federakuntza.